

2003KO MARTXOAREN 19KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hiruko martxoaren hemeretziaren, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Arantxa Zumelaga Agirre, Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti, Inazio Estensoro Eskisabel, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

Joseba Hernandez Madinabeitia, eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

Alkatea bilkurari hasera ematen ari denean, Irantzu Amundarain zinegotziak (Batasuna) galdetzen du, Batasuna alderdi politikoaren ilegalizazioaren sententzia atera ondoren ea beraien taldea bere horretan onartzen den, Batasuna bezala, edo eta gai honen inguruan Udalean erabakiren bat hartu den. Alkateak erantzuten dio berak, alde batetik alderdi politikoa eta bestetik Udaleko talde politikoa bereizten dituela, eta zentzu honetan, Udaleko talde politiko honi dagokionean, ez dela inolako jakinarazpenik jaso, eta beraz, artean, horrela jarraituko dutela. Batasuna bezala? galdetzen du Amundarain zinegotziak (Batasuna). Udaleko talde politiko bezala bai, erantzuten dio Alkateak.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du bere iritzia dela praktiko izan behar dela eta oztopoak daudenean ahal den neurrian arintasuna eman behar zaiola Udalaren funtzionamenduari.

Agirre zinegotziak (B) esaten du beraiek Batasunako partaide bezala aukeratuak izan zirela eta ez norbanako bakoitza bezala; horrela onartzen zaien bitartean etorriko direla eta bestela ikusiko dutela.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2003ko urtarilaren 30an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du, 41 guztira, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

...///...

III.- 2002ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 1. ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.-

Ondoren, Alkateak 2003ko martxoaren 4ko ebazpen bidez onartutako 2002 ekitaldiko aurrekontu likidazioaren berri ematen du. Likidazio honek 2.769.920,71 euroko Diruzaintzako Gerakin Likidoa ematen du. Txertaketak egiteko kreditu-gerakinak berriz 490.064,43 euro dira eta martxoaren 10eko dataz Alkatetzako Ebazpen bidez zenbateko horretako Kreditu Txertaketa bidezko 1 Zbk.dun Kreditu Aldaketa Espedientea onartu da.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Irantzu Amundarain zinegotziak (Batasuna) dio bere taldeak Ogasuneko Bilkurara ez zuela joaterik izan, likidazioaren dokumentazioa beraz berandu jaso dutela eta aztertzeko denborarik ez dutela izan. Gai hau hurrengo Osoko Bilkurarako uztea eskatzen du.

Alkateak erantzuten dio 2002-2003 urteetarako egindako plangintzaren barruko proiektu zerrenda dela. Esaten du proiektu hauek kudeatzen hasita daudenak eta oraingoz martxan jarri ahal direnak direla, eta kreditu aldaketa hau helburu hauetarako dirua jartzeko egiten dela. Kreditu gehigarriak banaka azaltzen ditu:

- Hirigoiengo etxebizitza soziala	560,00
- San Inazioko etxebizitzarako ekipamendua	1.000,00
- Kiroletarako dirulaguntzak	700,00
- Udal Ondasunen aseguruia	2.350,00
- Turismoa, hainbat gastu	500,00
- Goierri Lanbide Eskola	100,00
- Goierri Lanbide Eskola, inbertsioak	100,00
- Hirigoien, Uhaitz, Jose Lasa	71.000,00
- Hardware erosketa	6.000,00
- Liburu erosketa	6.000,00
- Sasieta Mankomunitatea	27.400,00
- Baserri bide eta Elkarteko lanak	60.000,00
- Futbol Zelaia	391.000,00
- Trasformadorea	36.000,00

GUZTIRA

602.710,00 euro

Une honetan, arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean, Juan Manuel Serna zinegotzia (PSE-EE) bertaratu da.

Alkateak jarraitzen du esanez 2002-2003ko plangintzako gainontzeko proiektuekin asmo berdina dagoela, posible egiten diren neurrian sartzen joan, kreditu aldaketa bidez dirua bideratuz.

Estensoro zinegotziak (EAJ) galdetzen du ea nolabaiteko eraginik egongo litzatekeen kreditu aldaketa honen onarpena hurrengo Osoko Bilkurarako utziko balitz.

Alkateak erantzuten dio eraginik egon badagoela. Alde batetik ordainketa batzuk pendiente daude (Hirigoieneko, Uhaitzeko eta Jose Lasako lanak esaterako) eta egin ahal izateko partidak gaitu egin behar direla; bestetik lanen hasera eta epeak ere aldatu egingo

...///...

...///...

lirateke (futbol zelaiko lanak adibidez) izan ere konkurtsoak atera ahal izateko partidak gaituta egon behar dira baita ere...

Irastortza zinegotziak (Batasuna) esaten du lehen Amundarain zinegotziak azaldutakoagatik bere taldea abstenitu egingo dela, nahiz eta lehendik adostutako proiektuak izan eta nahiz eta hala ere kreditu aldaketa aurrera aterako den.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du nahiz eta partida hauetan desadostasunik ez eduki, 2003ko aurrekontua osatzen duten partidak izanik, aurrekontua onartu ez zuten arrazoi berdinengatik oraingoan ere aurka bozkatuko duela alderdi sozialistak.

Eztabaida honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko bost botu (EAJ, EA), aurkako botu bat (PSE-EE) eta hiru abstentzioz (B), kreditu gehigarri bidezko 1 zbk.dun kreditu aldaketa onartzen du.

V.- SAN JOSEKO BERRURBANIZAZIO OBRAREN 6. ZERTIFIKAZIOA.-

San Joseko Berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman INJELAN, S.L. enpresako Iñaki Laskurain Gisasola injenieroak lanen seigarren zertifikazioa aurkeztu du. Seigarren zertifikazio hau EHUN ETA HAMAIRU MILA, BERREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMOKoa (113.267,88 €) da.

Zertifikazioa aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, berau onartzea erabakitzen du.

VI.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Alkateak jakinarazten du Eusko Jarularitzatik idatzi bat jaso duela Udalak onartuta dauden Ordenantza Fiskalen inguruan bi apreziazio eginez:

1.- "Azpiegituren Finantzazio Kanona" kontzeptua tasa bezala kobratzea ez dago inolako legean jasota.

Honen aurrean bi aukera egongo lirateke, kontzeptu honi dagokion zenbatekoa beste kontzeptuetan (Ura eta Estolderia) barneratzea edo kontzeptu honi izena aldatzea. Ogasuneko Batzordearen proposamena izena aldatzea da: "Altako estolderiaren mantenimendu tasa".

Kanon hau Uraren kontzeptuan barneratzeak BEZ aren eragozpena duela jakinarazten du Alkateak: Udalarentzat ez du inongo ondorio baina bai herritarrentzat, %7ko BEZa gehiago ordaindu beharko luketelako.

2.- Etxebizitza sozialei dagokien Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga: egun Udalak %100eko exentzioa du onartuta, eta legeak esaten du gehienez ere %95eko exentzioa ezarri daitekela.

Alkateak azaltzen du exentzio hau lehendik datorrela, Maturana Jauna Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburu zen garaian etxebizitza sozialak egiteko hitzarmena egiteko baldintza bezala jarri zuela obren zergaren %100eko exentzioarena. Proposamena exentzioa %95ean uztea da.

...///...

...///...

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, ahobatez bi proposamenak onartzea erabakitzen du.

VII.- EGUNKARIARI BURUZKO MOZIOA.-

Kontseiluak aurkeztutako mozioak honela dio:

“ Otsailaren 20an Guardia Zibilak, Juan del Olmo epailearen aginduz, Euskaldunon Egunkariaren egoitzak itxi eta 10 lagun atxilotu zituen, euskaraz idatzitako egunkari bakarraren aurkako operazioan. Argia eta Jakin aldizkariak, Ikastolen Federazioa eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa ere miatu zituen operazio hartan.

Eraso horiek, eta euskalgintzako beste erakunde batzuen aurka lehenago izandako beste hainbat, euskararen normalizazioaren aurkako estrategia kalkulatu eta iraunko baten barruan kokatzen ditu Kontseiluak. Egoera horren aurrean ondoko mozioa aurkezten du Osoko Udal Batzarrean eztabaidatu eta onartua izan dadin:

1. Lazkaoko Udalak Euskaldunon Egunkariaren itxiera eta bere arduradunen atxiloteta salatu nahi du, euskararen normalizazioaren eta adierazpen askatasunaren aurkako erasoak direlako.
2. Erasoa hau euskararen aldeko jardura oro susmopean jarri eta kriminalizatzeko saio bat gehiago delako eta euskararen normalizazio prozesua geldiaraztea helburu duelako tinko deitoratzen du Udal honek.
3. Udal honek bere elkartasuna adierazi nahi die operazio honetan atxilotutakoei eta kartzelaratuak berehalako askatasuna eskatzen du. Euskaldunon Egunkariako langile, arduradun eta irakurleei ere elkartasuna adierazi nahi die, bai eta Argia eta Jakin aldizkari, Herri Irratia, Ikastolen Federazioa eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioko kide guztiei ere.
4. Udal honek Euskaldunon Egunkariaren aurkako erasoak amaitu eta kioskoetan berriro edon dadila exigitzen du.
5. Euskarazko egunkari/prentsa mantentzeko edo sortzeko konpromezua adieraztea.”

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du alderdi sozialistatik ez dutela Egunkariaren prozesu judizialean nahasi nahi. Esaten du 1993-1994an sozialistek bultzatu eta lagundu zutela Egunkariaren sorreran, euskarazko egunkari baten argitaratzea positibotzat jotzen zutelako; baina orain akusazio batzuen pean dagoela eta ez dutela prozesu honetan nahasi nahi, nahiz eta, esaten du, espero duen ahalik eta azkarren errurik eza argitzea. Ondorioz esaten du berak ez duela mozioaren alde bozkatuko.

Eransten du ez duela uste Egunkariaren prozesu hau euskararen edo adierazpen eskubidearen aurkako ezer denik, pertsona batzuen talde armatuko pertenenziari buruzko prozesua baizik.

Ondoren Estensoro zinegotziak (EAJ) erreflexio pertsonal bat egiten du: nahiz eta pertsona batzuen karguak prozesu batean egon, eta bera ere ados egonik delituren bat egin duten pertsona batzuk badaude aztertu, konprobatu eta prozesu bat aurrera eramane behar denarekin, esaten du, hala ere, argia eta nabaria dela ezer demostratu aurretik Egunkaria 6 hilabeterako ixteak dagoeneko horrek kondenatzea suposatzen duela, eta 6

...///...

...///...

hilabete ondoren ireki nahi bada ezin izango dela, dagoeneko izango dela. Alde horretatik denuntzia babesten duela esaten du, eta zerbaitek usain txarra duela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du 5. puntua bakarrik onartuko lukeela (Euskarazko egunkari/prentsa mantentzeko edo sortzeko konpromezua adieraztea), baina euskararen eta adierazpen askatasunaren aurkakoa denik ez duela onartzen. Esaten du gero konprobatzen bada epaileen aldetik gehiegiko aktuzioa egon dela botere judizialak neurriak hartu beharko dituela. Alderdi sozialistak, erasten du, errurik eza demostratuko balitz behar diren ardurak eskatuko dituela, berak behintzat eskatuko duela.

Alkateak orduan, zera azpimarratzen du: alde batetik komunikazio bide bat dela eta hainbeste defendatzen den Konstituzioak onartutako eskubide baten aurka dijola; eta bestetik, delituak banakako pertsona fisikoenak direla, ez pertsona juridikoenak; esaten du kasu honetan egunkari batez hitz egiten ari garela eta Egunkaria ez dela pertsona fisiko bat. Orduan, jarraitzen du, egon daitezkeen pertsona fisikoei jarraitu diezaietela, baina horren justifikazio pean komunikazio bide bat ixtea ez dela oso juridikoa eta ez dagoela oinarrituta.

Irastortza zinegotziak (B) gogora arazten du Egin egunkariarekin ere argumentu eta sumario berdina ibili zela, kasu batzuetan pertsona berdinak inplikatur, eta 5 urtetan itxita egon dela.

Eztabaidaren ondoren mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EA, B) eta aurkako botu batez (PSE-EE), mozioa onartzea erabakitzen du.

VIII.- BERARIAZKO DISPONIBILITATEA.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) azaltzen du aurreko legealdian hartu zitzaizkaien gai honi, zenbait postutako egoerari erantzun bat emateko, beren ohiko lan egutegitik kanpo sartu beharrean gertatzen diren ordu extrengatik. Kanpoko enpresa batek egindako azterketa baten ondoren, hauetako postu bakoitzari ordu kopuru bat jarri zitzaion oinarri bezala, 60 ordutik 240 ordura bitartean, eta erabaki zen ordu hoiak %60a soldatan sartzea, disponibilitateko plus bat bezala, eta orduak kentzea. Postuak honakoak dira: kulturako koordinatzailea, kiroldegiko koordinatzailea, arkitektu teknikoak, zerbitzuetako arduraduna, udaltzainak eta brigadako langileak. Gaineratzen du konpromisua hartu zela gainera gaiari jarraipen bat emateko, pertsonen egoera asentatu eta organizazioaren beharrak egonkortu arte.

Orain, dio, hiru kasu aurkezten direla, baina berez bi aldagata:

1. Miren Larrañaga, Kulturako koordinatzailea: haseran 240 orduko oinarria jarri zitzaion, altuena. Orain ordea esaten du lan egiteko era aldatzen ari dela eta ez dituela hainbeste presentzi ordu egiten; erregularizatzea pentsatu da 140 ordura jeitsiz. Esaten du Gorka Lamy eta Estensoro zinegotzia bera egon zirela arduradunarekin eta berau ados agertu zela. Aldaketa hurrengo hileko nominan aplikatzen hastea proposatzen da.
2. Brigadako langilea, Eusebio García: honen kasua alderantzizkoa dela dio Estensoro zinegotziak; Udala gai honekin hasi zenean bere osasun egoera zela eta 60 orduko oinarria jarri zitzaion, gero 86 ordura igo zitzaion eta orain, lanpostua egonkortu dela eta, 105 ordura igotzea proposatzen da, Txominek, Zerbitzuetako buruak, duen kopuru berdina eta berak iazko urtean sartu zituenak. Txominekin berarekin eta brigadako beste langileekin ere hitz egin dutela esaten

...///...

...///...

du Estensoro zinegotziak. Aldaketa 2003. urtearen haseratik aplikatzea izango litzateke proposamena.

3. Miren Aldasoro, Arkitektu Teknikoa: Joseba Astegiak utzi zuen lanpostua hartu zuen eta beraz lanpostu berri batean sartu zen. Haseran gehiegi sartutako orduak ikaste prozesu baten ondorio bezala kontsideratzen zitzaizkion. Orain ordea, Joseba Astegiak zuen gehiegiko orduen oinarri berdina aitortzea proposatzen da, 100 ordukoa, eta datorren hiletik aplikatzen hastea. Esaten du azken hau ez litzatekela aldaketa bat, Joseba Astegiari onartutakoa berriro aplikatzea baizik.

Agirre zinegotziak (B) galdetzen du Joseba Astegiari noiz hasi zitzaion aplikatzen.

Alkateak erantzuten dio 1998-1999 urtean hasi zela honekin, aurreko legealdian, eta gero, oraingo legealdiaren haseran, berrikuspen bat egon zela.

Agirre zinegotziak (B) dio orduan honek adierazten duela, duela 4 urteko egoerara itzultzen garela, eta bere ustez gauzak hobetzen eta normalidade batean jeisten joan beharko liratekela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio ordu hauek langileen egutegiko lan-ordu normaletatik kanpo sartzen dituztenak direla eta denboran zehar ikusten joan dela bakoitzaren egoera zein den.

Irastortza zinegotziak (B) galdetzen du orduan zein maiztasunarekin berrikusten den hau, izan ere gerta daitekela urte batetik bestera salto handiak ematea.

Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio urte batetik bestera aldaketa handirik ez dagoela normalean, eta esaten du baita ere uste duela dagoeneko egoera nahiko egonkor bat lortu dela.

Juan Manuel Serna zinegotziak (PSE-EE) galdetzen du ea Eusebio Garcíaren atzeraeragitea konfirmatu den, eta Estensoro zinegotziak (EAJ) erantzuten dio baietz, datu hauek 2002tik datoztela eta brigada osatzen dutenekin eta langileen ordezkariarekin ere kontrastatu direla.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, ahobatez proposamena onartzea erabakitzen du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez dago.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko 8ak eta bost direnean nik, Idazkari Akzidentalak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...